BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3756

EBAZPENA, 2010eko abuztuaren 2koa, Ingurumeneko sailburuarena, Garbiker AB, S.A. enpresak Berrizko (Bizkaia) udalerrian sustatutako hondakin ez-arriskutsuen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko eta hura itxi ondorengo kontrola egiteko ingurumeneko baimena ematen duena.

AURREKARIAK

2008ko azaroaren 27an, Mikel Huizi Leizak, Garbiker AB, S.A.ren izenean eta hura ordezkatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratu bat ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Berrizko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko eta hura itxi ondorengo kontrola egiteko, Berrizko (Bizkaia) udalerrian. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

● «Berrizko (Bizkaia) hondakin geldoen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko eta ingurumena berreskuratzeko proiektua», (2.667. zk., 2008-02-29koa).

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Garbiker ABk (S.A.) lizentzia hauek zituen, besteak beste:

● Jarduera- eta bizigarritasun-lizentzia (Berrizko Udaleko alkatearen dekretua, 94-30314 zk.).

● Zabortegiaren zabalkuntzaren jarduera-lizentzia (Berrizko Udaleko alkatearen dekretua, 2002-30407 zk.).

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2009ko martxoaren 12an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Garbiker ABk (S.A.) sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2009ko apirilaren 20an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2009ko apirilaren 12an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, horri buruzko inolako alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2009ko ekainaren 1ean Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Berrizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko ekainaren 9an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Garbiker AB (S.A.) enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako Ebazpen Proposamena gehituz.

2009ko ekainaren 17an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak,1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitzea eta kontrolatzea, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz; helburua da ingurumen guztia ondo babestea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira.

Garbiker AB (S.A.) enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin ez-arriskutsuen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko eta hura itxi ondoren kontrola egiteko baimena; efluenteak isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta horri aurre hartzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk kasuan kasu txostenak luzatuz egindako parte-hartzea egiaztatuko da espedientean.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ingurumeneko Baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Garbiker AB (S.A.) enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Aizarnazabalgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika erabilgarri onenen erabilera. Sektore-araudiei dagokienaz gain, kasu honetan, araudi hauek aplikatuko dira bereziki: honda-

kinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea, Hondakinak zabortegietan utzita deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretua eta Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko ekainaren 9an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua), eta aplika daitekeen gainerako araudi orokorra,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Bilboko udalerriko (Bizkaia) Kale Nagusiko 8. zenbakian eta IFK: A48.212.567 Garbiker AB (S.A.) enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Berrizko udalerriko hondakin ez-arriskutsuen hondakin kontrolatua zigilatzeko eta hura itxi ondoren kontrola egiteko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 5.4. kategorian sartuta dago, «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gorako edukiera dutenak, hondakin geldoen zabortegiak izan ezik».

Garbiker AB (S.A.) enpresaren jarduera Berrizko hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzea eta hura itxi ondorengo kontrola egitea da.

Hondakindegia Berrizko udalerrian (Bizkaia) dago, belodromoaren eta Berrizburuko futbol-zelaiaren ondoan.

1994ko apirilean hasi ziren hondakinak Berrizko hondakin ez-arriskutsuen zabortegira iristen. Zabortegia ustiatzeko, aldibereko trinkotzearen teknika erabili da. 2008ko urtarrilaren 31n, hondakinak isurtzeari utzi zitzaion.

Zabortegiak bi sarrera ditu: bat sarrera nagusia da, goiko plataforman dago, eta hura ixteko, 9 m-ko luzerako gidaridun ate bat dago, eta bestea, behealdean dago, eta hura ixteko 7 m-ko atea dago.

Jabetza zedarritzeko eta inor kontrolik gabe ez sartzeko, 2 m-ko altuerako sare galvanizatu bat egongo da lursailaren inguruan. Hormigoiz ainguratutako hodi galvanizatuko zutoinek helduko diote sareari.

Orobat, zabortegiko mendebaldean, barne-bide batek goiko plataforma eta lixibiatuak kontrolatzeko kutxatila (zabortegiaren behealdean) lotuko ditu. Gainera, ekialdeko perimetroan, bide bat egongo da, eta berma-bide batzuk kanalaren ekialderantz luzatuko dira, bide gisa.

Zigilatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

● Ezponden gehienezko aldapa: 1/2,5 (V/H).

● Plataformaren gutxieneko aldapa: % 2.

● Tarteko bermak, % 2ko zeharkako aldapa.

Lixibiatuak drainatzeko, hauek erabiliko dira:

● Lixibiatuak aireztatzeko drain linealak, zigilatuaren azpian, hemen: zabortegiaren perimetroan, tarteko bermen gandorretan edo goiko parteetan, eta goiko plataforman.

● Geodraina (drainatze-geokonposatua), aurreko drainekin lotua, zigilatuaren geomintzaren azpian.

● Hodi biltzaileak.

● Husteko eta aireztapena kontrolatzeko elementuak, bermen goialdean eta gandorretan.

● Lixibiatuak kontrolatzeko kutxatilak.

Urak drainatzeko, hauek erabiliko dira:

● Zigilatzeko geosintetikoen segidaren goiko geodraina (drainatze-geokonposatua), zabortegiko azalera osoa drainatzeko.

● Barne-sistema: drain linealak eta drainatze-zangak zabortegiaren zigilatuaren gainean (bermak eta goiko plataforma), drainatzea tokibanatzeko, eta inguruko drainatze-sistemara progresiboki eta era bereizian husteko.

Bermetan, drain linealak jarriko dira (zanga/arteka PVCzko hodi drainatzailearekin eta geoehunez babestutako legarrez inguratua) goiko geodrainaren gainean, eta inguruko drainatze-sistemarekin lotuko dira, zabortegiaren bi aldeetan. Ezpondaren behealdean, bermetan jarritakoen antzeko drain lineal bat ipiniko da (baina bi hodirekin), zabortegiaren ardatzetik ekialdeko perimetroko hustubideraino. Eta goiko plataforman, drain linealak jarriko dira arrain-hezurduran.

● Inguruko sistemak zenbait ezaugarri izango ditu, zabortegiko sektorearen arabera.

Goiko plataforman, bermetan jarritakoaren antzeko drain lineal bat jarriko da perimetroan. Ekialdeko perimetroan, drain/hodi biltzaile bat jarriko da egungo areka handiarekiko pseudoparalelo. Eta mendebaldeko perimetroan, antzeko drain/hodi biltzaile ba ipiniko da, baina hodien diametroa apur bat txikiagoa izango da.

Proiektuan aurreikusitako ekoizte-prozesuek teknika erabilgarri onenak osatzen edo barruan hartzen dituzte. Horrela, ingurumena osotasunean babesteko helburuak betetzen dira, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian adierazitakoari jarraituz.

Bigarrena.– Garbiker AB (S.A.) enpresak Berrizko udalerrian sustatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzeko baldintza eta eskakizun hauek ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da seiehun mila (600.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko

kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtean behin eguneratu ahal izango da; aurreko 12 hilabeteetako kontsumorako prezioen indizearen (KPI orokorra) arabera areagotu edo egindako gastuen arabera murriztu ahal izango da.

B) Milioi bat berrehun eta hirurogeita hamar mila eta zortziehun (1.270.800) euroko fidantza eman beharko da, Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Fidantza horren zenbatekoa zigilatzeko, ixteko, itxi ondoren 30 urtean mantentze-lanak egiteko (hori da gutxieneko denboraldia, eta luzatu egin daiteke) eta lixibiatuak kudeatzeko kostuen arabera zehazten da. Fidantzaren funtzioa da jarduera uzteagatik sor litezkeen betebehar guztiengatik Administrazioaren aurrean erantzutea.

Zabortegiaren ingurumen-bilakaera ebaluatzeko, Organo honi bidaliko zaio bilakaera horren kontrol eta erregistro deskribatzaileei buruzko dokumentazio historikoa, batik bat lixibiatuei dagokienez.

Fidantza une oro eraginkorra dela ziurtatzeko, hiru urtean behin eguneratuko da Prezioen Indize Orokorraren aldaketaren arabera. Horretarako, fidantza eratzean indarrean zegoen indizea hartuko da oinarritzat.

C) Garbiker AB (S.A.) enpresak, baimen honen indarraldia amaitu baino urtebete lehenago gutxienez, zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen kostuei buruzko finantza-azterketa aurkeztu beharko du, ingurumena zaintzeko programaren bilakaera kontuan hartuta. Gainera, Garbiker AB (S.A.) enpresak zabortegiaren bizitza kutsatzailea laburtzeko har ditzakeen neurri guztiak ere aurkeztuko ditu.

Finantzen azterketa horretan, gastuak eta diru-sarrerak partidaka eta urteka xehatuta egon beharko dira, hondakindegia zigilatzeko eta hura itxi ondorengo kontrola egiteko planarekiko koherentzian.

D) Garbiker AB (S.A.) enpresak administrazioarekiko harremanen ardura duen goi-mailako tituludunari buruzko datu hauek jakinaraziko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa. Era berean, behar bada, datu horietan dagoen edozein aldaketa jakinaraziko du.

E) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

E.1.– Obra-faseko baldintza orokorrak.

E.1.1.– Jarduketa-eremua mugatzea.

a) Zabortegiaren zigilatze-azalerak bat etorri beharko du isurtze-azalerarekin; hau da, goiko eta beheko plataformak, eta ezponda hartu beharko ditu.

b) Zigilatze-obrak eta lurzoruaren okupazioa ekartzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obretako makinen eta ibilgailuen zirkulazioa aipatutako mugetatik kanpo.

c) Adierazitako esparru horretatik kanpoko ustekabeko kalteren bat sortuz gero, neurri zuzentzaile eta gunea eraberritzeko neurri egokiak hartuko dira, ebazpen honen E.1.8. atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

d) Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegiratzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian. Mugatze hori Obra Zuzendaritzak onartu beharko du, aurrez Ebazpen honetako E.1.8. atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzaren txostena eginda.

E.1.2.– Ondare naturala babesteko neurriak:

Bertako zenbait baso-espeziei buruzko berariazko araudiari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Arauan ezarritakoa alde batera utzi gabe, hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzeko eta ingurumena berreskuratzeko obra-planek bertako landaredia kentzea saihestuko dute.

E.1.3.– Lurzorua eta urak babesteko neurriak.

a) Garbiker AB (S.A.) enpresak sei hilabeteko epea izango du, ebazpen honen datatik aurrera, memoria bat aurkezteko. Memorian informazio hau adierazi beharko du: jardueraren isurtze-fluxuak, isurien ezaugarri kuantitatiboak eta kualitatiboak, eta baliabide hartzaileetara isurtzeko puntuak (UTM-ETRS98 kokapen-koordenatuak ere bai).

b) Obratako makinak gordetzeko azalera eta horren mantentze-lanak egiteko tokia drainatze-sare naturaletik bereiziko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, olioek eta erregaiek lurzorua eta ura kutsa ez dezaten. Ezin izango da erregairik zamatu, oliorik aldatu eta oro har tailerreko lanik egin adierazitako gunetik kanpo.

c) Zabortegia zigilatzeko eta ingurumena berreskuratzeko lanak egin bitartean, ahalik material xehe gutxiena bota behar da drainatze naturaleko sarera. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egingo dira, obren ondorioz kutsatutako urak bertan biltzeko.

d) Zabortegia faseen eta guneen arabera zigilatuko da. Behin xafla iragazgaitzak (dentsitate handiko polietilenozko geomintza, 2 mm-koa) jarritakoan, berehala estaliko dira, ahalik eta denbora gutxien egon daitezen erradiazio ultramorearen eraginpean.

e) Zigilatze-geruzak meteorologia-baldintzak aldekoak direnean soilik instalatuko dira. Meteorologia-baldintzak aldekoak diren ala ez jakiteko, fabrikatzailearen argibideetara jo beharko da, bai eta obran geosintetikoen kasuan ezartzen diren kalitate-kontrolera ere.

f) Sustatzaileak egiaztatu beharko du Hondakin-urak Behe-Nerbioi Ibaizabaleko saneamendu-sistema orokorrean isurtzeko eta ur horiek arazteko araupetzeko araudian ezarritako isurtze-parametroak betetzen dituela.

E.1.4.– Hauts-isuriak gutxitzeko neurriak.

a) Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko lanak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Aldi baterako hutsik dauden pistak eta azalerak ureztatzeko sistema eduki beharko da.

b) Obrako aldeen irteeran, ibilgailuak garbitzeko gailuak ezarriko dira. Instalazio horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza ebazpen honen E.1.10. puntuak aipatzen duen agirian jaso beharko dira.

c) Ahal de heinean, saihetsi egingo da partikula solidoen emisioak eta hautsa sortzea, ibilgailuak eta makinak irten eta ateratzean.

E.1.5.– Zarata eta bibrazioen eraginak gutxitzeko neurriak.

Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko fasean, proiektuan deskribatutako neurriak ezarri beharko dira, makinek bete beharreko baldintzei, horien mantentze-lanei, eta lan-ordutegiei dagokienez.

E.1.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko obretan sortutako hondakinak, hondeaketakoak, ebakiak, enbalajeak, erreuseko lehengaiak eta garbiketa-kanpainakoak barne, hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legean, eta aplikatzekoak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko obran sortutako hondakin guztiak, haien baliotzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balorizatzaile baimendu bati igorri beharko zaizkio. Hondakin horien balorizazioa teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

c) Zabortegira bideratu behar diren berrerabili edo baliotu gabeko materialak zabortegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozeduren arabera kudeatu behar dira.

d) Zabortegira eraman beharreko hondakinak otsailaren 24ko 49/2009 Errege Dekretuaren, hondakinak zabortegian utzita ezabatzea arautzen duenaren arabera kudeatuko dira.

e) Hondeaketaren soberakin-gordailuaren betegarria eraiki nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoa betez, dagokion betetze-proiektua idatzi beharko da, eta horren edukia Dekretu horren V. eranskinean zehaztutakora egokituko da. Eranskin horretan, betelanak instalatzeko proiektu teknikoek gutxienez ere zer eduki izan behar duten zehazten du. Proiektua ingurumen-organo honi aurkeztu beharko zaio, burutu aurretik baimena eman dezan.

f) Olio erabiliak ondorengo araudiei jarraituz kudeatuko dira: irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko olio erabilien kudeaketa arautzen duena, eta ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duena.

g) Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta horien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta produktuak biltegiratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatu gabeak sortuko.

Aurrekoaren ildotik, gune espezifiko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arriskutsuak –olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar– aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak; horietatik bereizita, edukiontzi espezifikoak jarriko dira hondakin ez arriskutsu eta geldoentzako. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, isurketa edo lurrunketa direla-eta edukia ez galtzeko. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak, eta abar) ezarriko dira obran zehar, eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako

garbigunean aldi baterako biltegiratu aurretik egingo da, eta horretarako, kontratistak dituenak edo Garbiker AB (S.A.) enpresak Berrizko zabortegiko instalazioetan dituenak erabiliko dira.

E.1.7.– Obraren garbiketa eta akabera.

Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko obrak bukatu ondoren, eremua ondo garbitu beharko da, proiektuaren eragin-eremutik obra-hondakin guztiak kenduz.

E.1.8.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Ingurumena berreskuratzeko eta zabortegia zigilatzeko lanak amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Baldintza-agiriak obraren zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak emateko, aldez aurretik aholkularitza ematen duten adituek egindako txostena aztertu beharko da.

E.1.9.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek, ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira eta obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda. Ondoren lanak burutzeko programan txertatuko dira. Honakoak dira agiriok:

a) Kontratistaren instalazioen guneen kokapenari eta hondakinak aldi baterako biltegiratzeari buruzko xehetasunak eta ezaugarriak, ebazpen honen E.1.6. atalean aurreikusitakoaren arabera.

b) Ebazpen honen E.1.3. atalean aurreikusitako solido esekiak atxikitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

c) Ebazpen honen E.1.4. atalean aurreikusitako ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

E.1.10.– Jarraibide egokien kontrola obren garapenean zehar

Obrak garatu bitartean jardunbide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarriz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiei eusteko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

E.2.– Zabortegia zigilatzeko obrak burutzeko baldintzak eta eskakizunak.

E.2.1.– Zigilatze-obrak hasi aurretiko baldintzak.

Garbiker AB (S.A.) enpresak zabortegiak egiten eta zigilatzen espezializatuta dagoen obra-zuzendaritza bat izendatu beharko du. Obra-zuzendaritza hori eraikitzailearekiko eta Garbiker AB (S.A.) sustatzailearekiko independentea izango da.

Halaber, zabortegia zigilatzeko geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratuko den eta sustatzailearen eta eraikitzailearen mende ez dagoen enpresa izendatu beharko du. Enpresa hori izango da Ebazpen honetako E.2.2. atalean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, Garbiker AB (S.A.) enpresak zuzendaritza teknikoaren eta iragazgaizteko geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola egingo duen enpresa arduradunaren izendapenaren berri eman beharko du ingurumen-organoan.

E.2.2.– Zabortegia zigilatzeko obrak burutzeko baldintzak eta eskakizunak.

a) Zigilatzeko segida hau izango da (goitik behera):

● Gainazala belarkien bidez estaltzea. Zabortegiaren zigilatzearen gainean zuhaixkak edo zuhaitzak landatzea, helduak direla haien tamaina eta sustraiak, sakontasuna, mota, kokapena edo ezarritako babesak direla-eta, drainatze-geruzaren, geomintzaren edo zigilatzearen hesi geologiko artifizialaren segurtasunari edo funtzionaltasunari ez eragiteko baldintzapean egongo da; eta irristaduraren aurrean landaketak ez du segurtasun-faktorea 1,5etik behera murriztu beharko.

● Landare-lurra: 0,50 m-ko edo gehiagoko lur-geruza, gehienez 25 cm-ko geruzetan trinkotua.

● Geodraina (drainatze-geokonposatua): geosintetikoa. Sandwich-motako egiturako hiru geruza izango ditu: geoehuna/geosarea edo geoehunezko egitura tridimentsionala, 12 mm-koa. Geruza drainatzaile honen igorgarritasuna drainatzearen luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta gaineko lurzoruaren estaldura-geruzaren eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatutako igorgarritasunarekiko >= 6ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan, eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gaindi ez ditzan.

● 2 mm-ko lodiera duen eta bi aldeak zimurtsuak dituen dentsitate altuko polietilenozko (HDPE) geomintza.

● Hesi geologiko artifiziala. 0,60 m-ko lodiera eta (10^{-9} m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzen bidez eraikia. Aurrekoak bezalako babesa eskainiz gero, txandaka bentonitazko geokonposatua (esaterako, ezpondaren eremuetan) edo hondakin trinkotuak erabili ahal izango dira egungo zabortegiak okupatutako eremuetan.

● 0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

Bestelako zigilatze-segidak proposa daitezke, modu egokian justifikatuz instalazioaren gorabehera zehatzei emandako soluzioa.

Ezponda-aldeetan, zigilatzean instalatutako geruzek >= 1,5eko segurtasun-faktorea izan beharko dute irristaduraren aurrean.

b) Gerta daiteke hondakinak andeatzea eta, horren ondorioz, hondakin-masa asentatzea. Ondorioz, entseguak eginez, utzitako hondakinen eta zigilatzean erabili beharreko materialen deformagarritasuna zehaztu beharko da. Kalkuluen bidez justifikatuko da, asentatze horien ondorioz, zabortegia zigilatzeko formaren diseinuak deformazio onargarria jasango duela.

Azkenik, asentatze/deformazioen kontrolerako plana diseinatuko da, egindako aurreikuspenak betetzen diren egiaztatzeko. Plan horrek erabili beharreko kontrol-metodoak (asentu-xaflak, inklinometroak, zigilatutako zabortegiaren azaleraren kontro topografikorako zedarriak, etab.), kontrol-lekuak, neurketen maiztasuna, neurketa-prozedurak eta egindako aurreikuspenak betetzearen egiaztapen-prozedura zehaztu beharko ditu.

Zabortegiaren egonkortasunari buruzko azterketan erabilitako materialen parametro geoteknikok saiakuntzetatik lortuko dira. Ahal dela, saiakuntza horiek in situ egingo dira. Irristaduraren aurrean, segurtasun-faktorea (FS) honelakoa izan behar da:

● Egoera normalean: FS ≥ 1,50.

● Ustekabeko egoeran (drainatze-sistemaren akatsa): FS ≥ 1,30.

Kontrol topografiko horren emaitzen txostenean, hauek jasoko dira: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa. Analizatutako egoerak bat etorri behar du aurkeztutako zabortegi-diseinuarekin.

c) Zabortegia prestatzeko eta zigilatzeko lanak burutzen diren bitartean proiektuan funtsezko aldaketak ekar ditzakeen aldaketarik eginez gero, ingurumen-organo honi jakinaraziko zaio balorazioa egin dezan, eta hala badagokio, burutu aurretik onar dezan.

E.2.3.– Sustatzailearen betebeharrak zabortegia zigilatzeko obrak amaitu ondoren.

a) Zabortegia zigilatu ondoren, obraren zuzendariak ebazpen honek ezarritako baldintza eta eskakizunei egokituta eta ebazpenaren oinarri diren agiri teknikoak beteta eraiki dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, ingurumena berreskuratu eta zabortegia zigilatu izanaren ziurtagiria bidali beharko du (obraren zuzendariak sinatuko du ziurtagiria), ondorengo agiriekin batera:

● Eraikitze-proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Proiektuan, plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasunaren murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa egongo da. Halaber, obra bukatzerakoan ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak zein planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

● Zigilatze-segidaren landare-lurraren geruzaren plano topografikoa, UTM-ETRS98 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

● Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak hartuko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

● Ingurumena berreskuratzean eta zabortegia zigilatzean garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzen txostena, sortu diren hondeaketa-materialen helmuga zehatza eta kopurua gehituz.

b) Aurreko atalean adierazitako obra-amaierako ziurtagiria eta horri erantsitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztu beharko zaizkio, horrek onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak zigilatzea bukatzea eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko ditu.

E.3.– Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak.

a) Zabortegia itxi ondorengo fasean, E.1.3.f) puntuan ezarritako baldintza berberak aplikatuko dira ibilgura isurtzeko.

b) Garbiker AB (S.A.) enpresa zabortegia ustiatzen duen erakundea den heinean, zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna izango da, eta funtzio horietaz arduratuko den pertsonaren izena jakinarazi beharko dio Ingurumen Organoari.

c) Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, edo itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatzen badira, zabortegiaren titularrak jakinarazi egin beharko du.

d) Itxi ondorengo kontrola eta zainketa-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren zigilatzea bukatzen den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan barrena lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarriko dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

e) Garbiker AB (S.A.) enpresak itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa arduraduna izendatuko du. Enpresa hori zabortegiaren titularra ez baldin bada, titularrak enpresa hori gutxienez urtebeteko aldirako izendatuko du. Izendapen horren berri eman beharko zaio Ingurumen Organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

f) Itxi ondorengo aldian zehar kokapenean jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena izan beharko da. Nolanahi ere, Ingurumen Organoaren aurrean ziurtatu beharko da jarduera horiek ez dietela eragiten zigilatzearen osotasunari, perimetro-kanalen jardunari, itxi ondorengo kontrol-sistemaren egonkortasunari edo elementuei, eta pertsonentzat arrisku onartezina ez dakartela.

Horretarako, zigilatzean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia ezabatu egingo da.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortegia itxi ondorengo fasean barrena zabortegiaren zigilatzea bizileku gisa erabiltzea. Ingurumen Organoak baimendu beharko du beste edozein erabilera, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako prozeduraren bidez; bereziki, arau horren 17. artikuluan lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozedura hastea eragiten duten kasuei dagokienez. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-segidako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

F) Lan-arriskuen prebentziorako baldintzak.

Zabortegia ustiatu, zigilatu eta itxi ondorengo aldian zehar, beharrezko neurriak hartu beharko dira istripuak saihestu eta horien ondorenak mugatzeko, bereziki azaroaren 8ko 31/1995 Legea, lan-arriskuen prebentziorako dena, eta hori garatzen duten arauzko xedapenak aplikatzea, «Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana. Memoria eta eranskinak» 5. dokumentuan deskribatutakora egokituz.

G) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan aurreikusi bezala egingo da (8. dokumentua: Obretan ingurumena kontrolatzeko plana, eta 9. dokumentua: Itxi ondorengo kontrol-plana), eta atal hauetan ezarritakoaren arabera:

G.1.– Uren eta efluente likidoen kalitate-kontrola:

a) Garbiker AB (S.A.) enpresak, hiru hilabeteko epea izango du, ebazpen honen datatik aurrera, kontrol-kutxatila guztiak (azaleko urak, lurpeko urak eta lixibiatuak) non dauden adierazten duen instalazio-plano bat aurkezteko. Plano horretan, hauek adierazi beharko dira: kutxatila bakoitzaren UTM-ETRS98 kokapen-koordenatuak, neurketa-parametroak, kontrol-maiztasuna eta egin beharreko kontrol-mota.

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen diren egunetik hasi eta hilabeteko (1) epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

EI Kontrol bakoitza baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, E.1.3. ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

G.1.1. Obrak egin aurreko kontrola.

a) Azaleko urak: Inbentario hidrologikoko bi kanpainak egin eta hauek neurtuko dira: emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura.

b) Lurpeko urak: Inbentario hidrologikoko bi kanpainak egin eta hauek neurtuko dira:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Zabortegiaren behealdeko kontrol-putzua	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Bi kanpaina	Kanpokoa
Zabortegiaren goialdeko putzua	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Bi kanpaina	Kanpokoa

c) Lixibiatuak: Lixibiatuei buruzko kontrol-sistema (zabortegiaren behealdeko kontrol jarraituko kutxatila) aintzat hartzeari utzi gabe, hau ere egingo da:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Lixibiatuen kontrol-kutxeta	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Bi kanpaina	Kanpokoa

G.1.2. Kontrola obretan zehar.

a) Azaleko urak:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Ekialdeko drainatze-sareko hustubidea (hodi biltzailea edota kuentoia/kanala)	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Egunero (lanegunetan)	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hiru hilean behin	Kanpokoa
Mendebaldeko drainatze-sareko hustubidea	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Egunero (lanegunetan)	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hiru hilean behin	Kanpokoa

b) Lurpeko urak:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Zabortegiaren behealdeko kontrol-putzua	Maila, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Egunero (lanegunetan)	Barrukoa
	Maila, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hilean behin	kanpokoa
Zabortegiaren goialdeko putzua	Maila, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Egunero (lanegunetan)	Barrukoa
	Maila, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hilean behin	kanpokoa

c) Lixibiatuak: Hau egingo da:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
Lixibiatuen kontrol-kutxeta	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Egunero (lanegunetan)	Barrukoa
	Emaria*, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hilean behin	Kanpokoa

(*) Kaudalimetroaren kalibraketa-neurketa.

G.1.3.– Obra-amaierakokontrola.

Obrak amaitzean, ingurumen-egoera zehazteko:

a) Puntu hauek kontrolatuko dira azaleko uretan:

● Ekialdeko drainatze-sareko hustubidea (hodi biltzailea edota kuentoia/kanala). Parametro hauek aztertuko dira: emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.

● Mendebaldeko drainatze-sareko hustubidea. Parametro hauek aztertuko dira: emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.

b) Puntu hauek kontrolatuko dira lurpeko uretan:

● Zabortegiaren behealdeko kontrol-putzua. Parametro hauek aztertuko dira: emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.

● Zabortegiaren goialdeko putzua Parametro hauek aztertuko dira: emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.

● Lixibiatuak: Kontrol jarraituko sistemaz gain, lixibiatuak kontrolatzeko kutxatilan obrak amaitzean, parametro hauek aztertuko dira: emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.

G.1.4. Itxi ondorengo kontrola.

a) Azaleko urak:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak*	Kontrolen maiztasuna**	Kontrol-mota
Ekialdeko drainatze-sareko hustubidea (hodi biltzailea edota kuentoia/kanala)	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Hilerokoa***	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Sei hilekoa	Kanpokoa
Mendebaldeko drainatze-sareko hustubidea	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Hilerokoa	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Sei hilekoa	Kanpokoa

(*) Detekzio-atariek eta gaineko mugek parametro bakoitzaren bilakaera kontrolatzeko aukera eman beharko lukete.

(**) Adierazitako parametro bakoitzaren kontrola eta aldizkakotasuna berrikusi ahal izango da, erregistratutako balioetan oinarrituta.

(***) Zabortegiaren itxiera onartu eta bigarren urtetik aurrera, sei hilean behin egingo dira.

b) Lurpeko urak:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak*	Kontrolen maiztasuna**	Kontrol-mota
Zabortegiaren behealdeko kontrol-putzua	Maila, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Hilean behin	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Sei hilekoa	Kanpokoa
Zabortegiaren goialdeko putzua	Maila, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Hilean behin	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Sei hilekoa	Kanpokoa

(*) Detekzio-atariek eta gaineko mugek parametro bakoitzaren bilakaera kontrolatzeko aukera eman beharko lukete.

(**) Adierazitako parametro bakoitzaren kontrola eta aldizkakotasuna berrikusi ahal izango da, erregistratutako balioetan oinarrituta.

(***) Zabortegiaren itxiera onartu eta bigarren urtetik aurrera, sei hilean behin egingo dira.

c) Lixibiatuak: Hau egingo da:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak*	Kontrolen maiztasuna**	Kontrol-mota
Lixibiatuen kontrol-kutxeta	Emaria, eroankortasuna, pH-a eta tenperatura	Etengabe***	Barrukoa
	Emaria, eroankortasun elektrikoa (EE), pH-a, tenperatura, solidoak esekiduran, DQO, DBO_5, N-NH4+, fosforoa guztira, C10-C40 hidrokarburoak, fluoruroak, fenolak, sulfatoak, kloruroak, alkalinotasuna, aluminioa, artsenikoa, kadmioa, beruna, burdina, nikela, zinka, kobrea, kromoa, manganesoa eta eztainua.	Hilerokoa****	Kanpokoa

(*) Detekzio-atariek eta gaineko mugek parametro bakoitzaren bilakaera kontrolatzeko aukera eman beharko lukete.

(**) Adierazitako parametro bakoitzaren kontrola eta aldizkakotasuna berrikusi ahal izango da, erregistratutako balioetan oinarrituta.

(***) Zabortegiaren itxiera onartu eta bigarren urtetik aurrera, neurriak jarraituko duen ala ez aztertuko da.

(****) Zabortegiaren itxiera onartu eta bigarren urtetik aurrera, sei hilean behin egingo dira.

Beren konposizioagatik isuri ezin diren eta kudeatzaile baimenduak bilduko dituen lixibiatuen kasuan, hilero, Ingurumen Organoari, gutxienez, egindako lixibiatu-garraio bakoitzaren alderdi hauek jasoko dituen egiaztagiria bidaliko dio:

- Zabortegiko lixibiatuen irteera-data.
- Garraiatutako lixibiatuen bolumena.
- Lixibiatuen helmuga.
- Lixibiatuak garraiatu dituen enpresa.
- Garraioa egin duen ibilgailuaren matrikula.

G.2.– Atmosferara egindako isurpenak kontrolatzea.

G.2.1.– Zabortegiko gasen isurpenak.

a) Obrak egin aurreko kontrolak: Neurketa eten eta zuzeneko bi kanpaina egingo dira, obrak egingo diren lekuetan. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura.

b) Kontrolak obretan zehar: Hilean behin, zuzenean neurtuko da isuria obrak egiten diren lekuetan. Lixibiatuak drainatzeko sistemaren husteko eta aireztapena kontrolatzeko guneak prest daudenean, gune horietan egingo dira neurketak. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura.

c) Obren ondorengo kontrola: ingurumen-egoera zehazteko, isuria zuzenean neurtuko da husteko eta aireztapena kontrolatzeko guneetan. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura.

d) Itxi ondorengo kontrola: Lehen urtean, hilean behin neurtuko da aireztapena, eta hurrengo hiletan, sei hilean behin. Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura.

G.2.2. Hauts-isurpenak.

a) Obrak egin aurreko kontrolak: Hasieran, zenbait fenomenoren behaketan eta erregistro kualitatiboan oinarrituko da kontrola. Besteak beste, hauek dira fenomenoak: hautsa esekidura atmosferikoan, zabortegiaren perimetroaren barruko landaredian edo beste leku batzuetan jalkitako hautsa, eta hautsa isur dezaketen eremuak. Bi ikuskapen-kanpaina egingo dira meteorologia baldintza desberdinak dituzten egunetan (egun batean behintzat, haizearen indarra ertaina edo handia izango da).

b) Kontrolak obretan zehar: Hasieran, zenbait fenomenoren behaketan eta erregistro kualitatiboan oinarrituko da kontrola. Besteak beste, hauek dira fenomenoak: hautsa esekidura atmosferikoan, zabortegiaren perimetroaren barruko landaredian edo beste leku batzuetan jalkitako hautsa, eta hautsa isur dezaketen eremuak. Kontrol erdijarraitua egingo da; gehienbat, isuriak sortzeko aukera gehien duten une edo egunetan.

c) Obren ondorengo kontrola: ingurumen-egoera zehazteko, zenbait fenomenoren ondorioz hauts-isurpenak gertatzen diren ala ez egiaztatuko da. Besteak beste, hauek dira fenomenoak: hautsa esekidura atmosferikoan, zabortegiaren perimetroaren barruko landaredian edo beste leku batzuetan jalkitako hautsa, eta hautsa isur dezaketen eremuak.

d) Itxi ondorengo kontrola: Hilean behin, zenbait fenomeno gertatzen diren ala ez aztertuko da. Besteak beste, hauek dira fenomenoak: hautsa esekidura atmosferikoan, zabortegiaren perimetroaren barruko landaredian edo beste leku batzuetan jalkitako hautsa, eta hautsa isur dezaketen eremuak.

G.3.– Isuri-ontziaren topografiaren kontrola (itxiera eta itxi ondorengoa)

Isurtzeko ontziaren topografiaren kontrola sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioko proposamenean aurreikusi bezala egingo da. Hain zuzen, 8. dokumentuan (Obretan ingurumena kontrolatzeko plana) eta 9. dokumentuan (Itxi ondorengo kontrol-plana) aurreikusita dagoenaren arabera.

a) Obrak egin aurreko kontrolak: Kontrola egiteko, 0 maila ezarriko da. Horretarako, beren-beregi egindako zedarri eta oinarrien neurketa, leheneratzea, berdinketa eta triangulazio topografikoa egingo da, eta eskualdeko sare ofizialean adieraziko dira.

b) Kontrolak obretan zehar: Esparrua airetik aztertu, lursailaren ezegonkortasun-fenomenoak ikuskatu eta kontrol topografikoa egingo da (zedarriak eta oinarriak).

c) Obren ondorengo kontrola: ingurumen-egoera zehazteko, esparrua airetik aztertu, lursailaren ezegonkortasun-fenomenoak ikuskatu eta kontrol topografikoa egingo da (zedarriak eta oinarriak).

d) Itxi ondorengo kontrola: Lehen urtean, kontrol topografikoa hilean behin egingo da, eta hurrendo urteetan, berriz, sei hilean behin.

Kontrol topografikoen emaitzek hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

G.4.– Meteorologia-kontrola.

Kokapeneko estazioak bildutako meteorologia-parametroak kontrolatuko dira. Meteorologia-kontrola egiteko, Meteorologiako Euskal Zerbitzuak lurretan dituen meteorologia-estazio automatikoan erregistratutako datuak soilik erabil daitezke, betiere, datu horiek Garbiker AB (S.A.) enpresaren estazioko datuekin bat badatoz. Datuak bat datozen ala ez jakiteko, bi estazioetan erregistratutako historikoak alderatzen dituen txosten bat egin beharko da.

Kontrola kokapenean dagoen estazioaren bidez eginez gero, Garbiker AB (S.A.) enpresak hornitu beharko du. Hain zuzen, erregistro automatikoko euri-neurgailu bat izan beharko du zabortegiaren instalazioen barruan. Bildutako datuak Meteorologiako Euskal Zerbitzuaren lurretako Estazio meteorologiko automatikokoekin osatuko dira.

Erregistro automatikoko euri-neurgailuan prezipitazioa kontrolatuko da, eta estazio meteorologiko automatikoan, tenperatura (minimoak, eguneko batez bestekoak eta maximoak), haizearen indarra eta norabidea, hezetasuna, presioa eta eguzki-erradiazioa.

Parametro horiek erregistratzeko eta kontrolatzeko maiztasuna taula honetan dago:

Laginketa-puntua (X, Y, Z)	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	
		Obretan zehar	itxi ondoren
Obraren meteorologia-estazioa	Prezipitazio-bolumena	Egunerokoa	
	Tenperatura (min., max., 14:00etan HCE)	Egunerokoa	Hileko batezbestekoa
	Atmosferaren hezetasuna (14:00etan HCE)	Egunerokoa	Hilerokoa
	Lurrunketa (lisimetroa edo metodo baliokidea)	Egunerokoa	
	Haize nagusiaren norabidea eta indarra	Egunerokoa	-----

Ingurumen Organoak parametro horiek neurtzeko maiztasunak aldatu ahal izango ditu, baldin eta erabakitzen badu balantze hidrologikoa ez dela egokia isurtze-ontzian lixibiatua pilatzen den ala ez ebaluatzeko, edo iragazketak gertatzen badira.

G.5.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek urtero zabortegiaren balantze hidriko bat egin beharko du. Horretarako, Iurretako estazioan erregistratutako lixibiatuen emariaren datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegiaren gainazalean sortzen diren aldaketen plano topografikoak erabiliko dira. Datuak erabiltzeko, hauek hartuko dira kontuan: sarrerak (zabortegiak sortutako emariak, beste batzuk), tratamendu-ahalmena, irteerak, eta putzuen barne-biltegiratzearen aldaketa.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegiaren portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

G.6.– Tresnen kontrola.

Urtean behin, tresneriaren kontrolean espezializatutako enpresa batek txosten bat egingo du neurri zuzentzaileen funtzionamenduari eta prozesuen eta inguruneko kalitatea kontrolatzeko sistemen funtzionamenduari buruz.

G.7.– Jardueraren adierazleak.

Garbiker, A.B. (S.A.) enpresak txosten bat egin eta Ingurumen Sailburuordetzari igorriko dio. Txosten horretan, jardueraren adierazleak kalkulatu eta kontrolatuko dira; horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

G.8.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko siste-

mak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren eta gainazaleko eta lurrazpiko uren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako, Bizkaiko edo Arabako Ordezkaritza).

G.9.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategin bat egin beharko du. Agiri horretan, ingurumena berreskuratzeko eta Berrizko hondakin geldoen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko dokumentazioan proposatutako betebeharrak jaso beharko dira («Berrizko (Bizkaia) hondakin geldoen hondakindegi kontrolatua zigilatzeko eta ingurumena berreskuratzeko proiektua», (2.667. zk., 2008-02-29koa), bai eta Ebazpen honetan ezarritakoak ere. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak. Gainera, plano batean, laginketa-puntu bakoitza non dagoen adieraziko du, UTM-ETRS98 koordenatuak erabilita. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

H) Ezohiko egoeretan, kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

H.1.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Otsailaren 4ko 1/2005 Legearen, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoaren, II. eranskinean eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituenean, hondakinak isurtzea lurzorua kutsa lezakeen jarduera gisa dago sailkatuta. Hortaz, hondakinak ezabatzeko instalazio horien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoek lege horrek lurzorua kutsa lezaketen jardueretarako ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte.

H.2.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jokabideak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak, kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Lehen aipatu dugun prebentziozko mantentze-lanetarako eskuliburuan atmosferaren kutsadura saihesteko eta zuzentzeko sistemak egoera onean daudela bermatzeko neurriak sartuko dira.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Zabortegiaren perimetro-itxitura egoera onean egongo da.

e) Olioak eta erregaiak, besteak beste, maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak irazgaiztuko dira.

f) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

g) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

h) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria, isurtzeko muga-balioak gainditzea, edo zabortegiaren zigilatzearen edo itxi ondorengo sistemaren elementuren baten funtzionamenduari edo integritateari eragin diezaiokeen beste edozein), Garbiker aB (S.A.) enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

i) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Berrizko Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

l) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean,

neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

J) Urtean behin, Garbiker AB (S.A.) enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio isuri atmosferikoei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 2007/20 Errege Dekretuaren, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Aipatutako informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (web-orrian eskuragarri): Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

K) Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, hona helbide elektronikoan datorren formularioa beteko da: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informa cion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/1208 Errege Dekretu Legegilearen I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako bal-

dintzak betetzen direla: A (gizarte-erantzukizuneko asegurua); B (fidantza eta dokumentazio historikoa); D (ardura duen goi-mailako tituludunari); D.1.3 (obra-arduradunak izendatzea; E.1.3.a) (isurpen-fluxuen memoria deskribatzailea); E.1.3.f) (isurpen-parametroak betetzea) E.2.1 (zuzendaritza teknikoa izendatzea); E.2.3.a) (obra-amaieraren ziurtagiria); F.d) (enpresa izendatzea); F.e) (lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena); H.1.a) (planoa); H.1.1 (efluente likidoen kontrola, obrak hasi aurretik); H.1.2 (kontrola obretan zehar); H.1.3 (obra-amaierako kontrola); H.2.1.a),b) eta c) (gasen kontrola, obrak hasi aurretik, obretan zehar eta obrak amaitu ondoren); H.3.a), b) eta c) (kontrol topografikoa); H.4 (meteorologia-parametroen kontrola eta datuak bat datozela egiaztatzen duen dokumentazioa); H.5 (balantze hidrikoa); H.7 (jardueraren adierazleak); H.9 (Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina); I.2.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); I.2.f (Larrialdietan jarduteko materialen ezaugarriak eta kopurua).

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako Ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Baimen hau eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da Ingurumen Sailburuordetzak Ebazpen honetako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa baliozkotzea, eta ikuskapen-bisitan zehar, instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoaren arabera zigilatu direla egiaztatzea. Ematen den Ebazpenaren eraginkortasuna zigilatze-prozesua bukatzearen onarpenari dagokio, eta zigilatutako azalerako lurzoruaren kalitatearen adierazpenari eta itxi ondorengo aldia hasteari ere bati.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratua 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Artikulu hori betetzearen kalterik gabe, ebazpen honen baldintzak –ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta– aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

● Araudi berria indarrean jartzen bada.

● Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

● Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoak ez direla egiaztatzen bada.

Seigarrena.– Garbiker AB (S.A.) enpresak ebazpen honen xede den hondakin ez-arriskutsuen zabortegian titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen

Sailburuordetzak onar dezan. Edonola ere, zabortegiak eta bere instalazio osagarriek okupatutako lursailaren titulartasuna transmititzen bada edo hori edukitzea bertan behera uzten bada, ebazpen honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen jarraitu beharko da. Edozein titulartasun-aldaketarik eginez gero (salmenta, lagapena, etab.) aldaketa hori Ingurumen Organoari jakinarazi beharko zaio, formalizazioa egin eta hilabeteko epea baino lehen, eta Ingurumen Organoak aldaketa hori onartu behar du agirien bidez, dagokion ebazpena igorriz.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

● Ebazpen honetako laugarren idatzi-zatian ingurumen-baimen bateratuaren eraginkortasunari buruz ezarritako baldintzak epearen barruan ez betetzea, interesdunak epea luzatzeko arrazoitutako eskaria egin ez badu.

● Garbiker AB (S.A.) enpresaren nortasun juridikoa iraungitzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Horrez gain, ibilgura isurtzeko baimena ezeztatu ahal izango da, Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduko 263. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Garbiker AB (S.A.) enpresari, Berrizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 114. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraiki (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Gasteizen, 2010ko abuztuaren 2an.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.